

GIG 44

ERMITIAKO KOBIA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2,25**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Ermittia Bekoa haitzuloak Euskadiko lurpeko sare zabalenetako bat osatzen du, Aixako Zuloarekin batera (60. GIGa). Esploratutako eta topografiatutako galeriak 10 km luzean baino gehiagoan igarotzen dira, eta oraindik ere badira esploratzeke dauden eremu ezezagunak.

Aixa bera bezalaxe, barrunbea oso labirintikoa da, eta garapen horizontaleko galeria ugari ditu maila desberdinetan. Sarearen norabide nagusia ESE-WNW da, eremu horretako jarraibide estruktural orokorre segituz.

Ermittiako galeria gehienak fosilak dira; hau da, gaur egun ez dira aktiboak hidrologikoki. Alabaina, sareko beheko puntu batzuetan maila freatico lokaltzat har daitekeen tokira iristen da. Trazadura-saiakuntzen bidez egiaztatu da sare hori Erribera Goikoa izeneko iturburuari dagokiola (7 metroko altitua itsas mailaren gainetik), Deba ibaiaren eskuineko ertzean.

Ermittia Bekoari dagokionez, nabarmentzekoak dira haren espeleotemen ugaritasuna eta edertasuna, depositu flubiokarstikoen ugaritasuna eta kontserbazio egoera bikaina, bai eta galerien morfologia ere. Sarbidea zulo obalatu bat da, 1 m² pasatzeko sekzioa duena; ez da berez oso erakargarria, eta ez du iragartzen barruan ezkutatzen dituen edertasunak.

NOLA BERTARATU

Ermittia Bekoko sarbidea asfaltatu gabeko bidearen barrenean dago. Bide hori Debatik abiatzen da, eta Deba ibaiaren eskuineko ertzaren gaineko mendi-mazelaren erditik igarotzen, herritik 2,5 kilometrora, gutxi gorabehera.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Sarreratik hurbilen dauden galeriak izan ezik, ez da egokia bisitari-mota guztientzat. Gomen-dagarria da espeleologian nolabaiteko maila eta esperientzia izatea.




Kobako galeria nagusiaren ikuspegia. Argazkia: Jose Manuel Franco.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X = 551534 / Y = 4791878 / Z = 68



Ermittiako kobazuloaren barnealdea.

Argazkia: Jose Manuel Franco.